

2. maila 2. zatia: Gaia garatu

Gaia prestatzeko denbora: 10 minutu dituzu gaia prestatzeko.

Prestatu behar duzun gaia: **Zer da egokiena hizkuntza bat ondo ikasteko?**



Egoera

Zenbait lanpostutan oso garrantzitsua da hizkuntzak menderatzea. Zer egin dezakegu, ordea, hizkuntza bat ikasi nahi dugunean, ondo ikasteko?

Egitekoa

Esan zergatik ikasten den/duzun hizkuntza bat. Adierazi zein den ikasteko modurik onena. Eman iritzia: denbora asko behar da hizkuntza bat ikasteko?.

Gaia prestatu ondoren, 2 minutu inguru duzu hitz egiteko.

2. MAILA 3. zatia

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Fitxan hizkuntza ikasteko zenbait ekintzaren argazkiak ageri dira. Zuen inguruko ikasle batentzat **hiru ekintza aukeratu** beharko bazenituzte, zeintzuk aukeratuko zenituzkete? Zergatik? Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Ondoren **eztabaidatu eta adosten saiatu**.



Zenbat eta gazteago izan, orduan eta errazagoa da hizkuntza bat ikastea.



Asko irakurtzea ezinbestekoa da hizkuntza bat menderatzeko.



Ikasgelan, beste ikasleekin eta irakaslearekin ikasten da gehien.

ZER DA EGOKIENA HIZKUNTZA BAT ONDO IKASTEKO? AUKERATU HIRU



Baliabide asko dago Interneten.



Herrialdean bertan ikasi behar da.



Ahalik eta gehiena praktikatzea da onena.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

ADOS NAGO ZURE IRITZIAREKIN.- Estoy de acuerdo con tu opinión.

AHALIK ETA GEHIENA PRAKTIKATZEA DA ONENA.- Lo mejor es practicar lo más posible.

ASPALDI HASI NINTZEN EUSKARA IKASTEN. Comencé a aprender euskara hace tiempo.

BALIABIDEAK.- Recursos.

EZ DUT NOREKIN HITZ EGIN. No tengo con quién hablar.

EZINBESTEKOA DA.- Es imprescindible.

GARRANTZITSUA DA.- Es importante.

HIZKUNTZA BAT IKASTEKO GARAIA.- A la hora de aprender un idioma.

HIZKUNTZAK MENDERATZEA.- Dominar idiomas.

LOTSA EMATEN DIT HITZ EGITEAK. Me da vergüenza hablar.

NI EZ NAIZ BATERE ONDO MOLDATZEN. Yo no me las arreglo nada bien.

NIK NAHIAGO DUT JENDEAREKIN PRAKTIKATU. Yo prefiero practicar con la gente.

NIK, ESATERAKO, AHALEGIN HANDIA EGIN BEHAR DUT. Yo, por ejemplo, tengo que hacer un gran esfuerzo.

NIRETZAT OSO BALIAGARRIA DA TELEBISTAKO SAIOAK IKUSTEA. Para mí es muy útil ver programas de televisión.

ZENBAT ETA GAZTEAGO, ORDUAN ETA ERRAZAGOA DA.- Cuanto más joven es más fácil.

Ideia osagarriak

- *Hizkuntza bat ikasteko gakoa lan egitea da.*

- *Hizkuntza ondo ikasteko, lehenbizi, gramatika menderatu behar da, gero hizketan jarduteko.*

- *Bada hizkuntzak ikasteko izugarrizko erraztasuna duenik.*

- *Hizkuntza bat ikastea garestia da?*

- *Prestigiozko hizkuntza ikasteko, errazago ahalegintzen gara.*

- *Familia, lagunartea eta kalea: esparru horiek dira ikaslea trebatzeko ezinbestekoak.*

- *Hizkuntza berri batek kultura berri baten aurrean jartzen zaitu.*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

1255132 [J.J. Ibarretxe: "Zein da euskara edo beste hizkuntza bat ikasteko gakoa? Maitasuna"](#)

364300 [Geure bideari harrika gabiltzanean](#)

364316 [Geure bideari harrika gabiltzanean](#)

1338712 [Ni Tarzan... Zu Jane](#)

120895 HABE 315. Alearen eranskina: [Honela ikasten dira hizkuntzak](#). Hizkuntzak ikasteko aholku-bilduma

1479011 [Euskara ikastearen esperientzia](#)